# UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK
# BEKA-ESKATZAILEENTZAKO JARRAIBIDEAK
# 2018-19KO DEIALDIA

## A. 2017-2018KO IKASTURTEKO BEKA-ESKATZAILEAK

Zentroak 2017-2018ko ikasturteko beka-eskatzaile guztien 2018-2019ko eskabide-inprimakiak inprimatuko ditu, datuak aurretik grabatuta, eta datu horiek berrikusteko entregatuko dizkie. Inprimakian ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskabidea izapidetzen jarraitu daiteke, paperean zein telematikoki.

Izapidetze telematikoarekin jarraituz gero, eskabide-ereduan agertzen den Interneteko helbidea eta egiaztatze-kodea erabili ahal izango ditu. Horrela, ez du zentrora joan beharrik izango.

Zentroan aurkeztea hautatzen bada, eskatzaileak **eskabidea sinatu** eta bertan entregatuko du. Zentroak sarrera-erregistroa emango dio eta egiaztagiria entregatuko du. Egiaztagiri hori gorde egin behar da, edozein erreklamazio egin behar bada ere.

Eman beharreko dokumentazioa: eskabide-inprimakian aipatzen diren dokumentuak erantsi beharko dira, soilik 2017-2018ko ikasturtean emandako datuekiko aldaketarik egon bada. 2017an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerei dagokienez, Hezkuntza Sailak ogasun administrazioen bidez lortu ezin dituen egiaztagiriak soilik aurkeztuko dira (Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo zergak ordaintzen badituzte, PFEZren aitorpena aurkeztu beharrik ez badute edo beste edozein egoera suertatzen bada).

## B. 2018-2019 IKASTURTEKO BEKA-ESKATZAILE BERRIAK

Eskabide-inprimakia bi eratara izapidetu daiteke:

- Telematikoki, http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ helbide elektronikoaren bidez, administrazioak onartutako edozein egiaztagiri elektronikoren bidez identifikatuta (Izenpe herritar txartela, NANe, B@kQ edo Izenperen Itsasontzi-jokoak) edo erabiltzaile berri gisa erregistratuz. Eskabide elektronikoa erabat beteta dagoenean, izapidetze telematikoa egiten jarraitu edo paperean aurkeztea aukeratu beharko du.

- Paperean. Zentroak eskabide-inprimakia emango dio eskatzaileari, eta sisteman sartutako datuak aurrez kargatuta irtengo da. Eskatzaileak eskabidea beteta eta sinatuta entregatzen duenean, zentroak eskabidea erregistratu eta egiaztagiria entregatuko du. Eskatzaileak ondo gorde behar du egiaztagiria, gerora erreklamaziorik egin behar bada ere.

Erantsi beharreko dokumentazioa: eskabide-inprimakian zerrendatutakoa.

# ERANSKINA

## 2017-2018 IKASTURTEAN BEKA ESKATU ZUTEN IKASLEAK







OHARRA: Iaz kontu-zenbaki bat eman ez bazenuen puntu honetan eskatuko zaizu.

1. Proposamena baieztatu.




OHARRA: Une honetan email bat eskatuko zaizu eta email horretan justifikazioa jasoko duzu